

I. ERANSKINA

HASIERAKO LANBIDE KUALIFIKAZIOKO PROGRAMA

Izena: **ETXEKO JARDUERETAKO ETA MENDEKO PRETSONENTZAKO OINARRIZKO ZAINZETAKO LAGUNTZAILEA**

Kodea: GIK1024

Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak

1. LANBIDE PROFILA

A. *Konpetentzia orokorra:* Mendeko pertsoneri edo gizarte-beharrak dituztenei (3. adina, haurrak, minusbaliatuak) sorospena, laguntza pertsonala eta etxekoa emateko, eta haien ondoan egoteko oinarrizko eragiketak egitea, etxean edo sorospen-erakundeetan, segurtasun- eta higiene-irizpideak aplikatuta, pertsoneri ahalik eta ongizate fisiko, psikiko eta sozial handiena emateko.

B. *Konpetentzia sozialak, pertsonalak eta profesionalak*

- Beirak, paretak, atek, errodapiak, zoruak, alfonbrak, altzariak, apaingarriak eta ehunezko gainazalak garbitzea, eta etxea aireztatzea; makineria, produktu eta prozedura egokiak erabilia, eta ekintzaren ondoriozko arriskuak saihestuta.
- Elikagaiak eta produktuak erostea, ezarritako aurrekontuaren arabera eta iraungitze-data behatuta.
- Eskuratutako produktuak antolatu, manipulatu, gorde eta kontserbatzea, prozesu osoan higieneari eutsiz.
- Elikagaiak kontsumitzeko prestatzea, prestaketa-denborak errespetatuz.
- Prestaketa- eta kontsumo-prozesuan erabiltzen diren baxera, tresnak, etxetresna elektrikoak eta gainazalak garbitzea, sukaldea baldintza higienikoetan eta txukuntasun egokian mantenduta.
- Etxeko arropa eta jantziak garbitu, lehortu, lisatu eta josteko prozesuak egitea, tresna eta teknika egokiak erabilia.
- Oheak prestatzea, pertsonak atsedean har dezan laguntzeko.
- Paperontzi eta edukiontzietako hondakinak ezabatzea, haien higiena ziurtatzeko.
- Komunak higienizatu eta desinfektatzea.
- Erraztatu eta garbitzeko makinak maneiatu eta erabiltzea, zorua desugertzea, eta ezkoztatu, distirarazi eta beirak garbitzeko lanak egitea, berariazko produktuak aplikatuta eta makineria egokia erabilia.
- Erabilitako makinak begiz ikuskatzea eta gordetzea, haien funtzionamendua ziurtatzeko.
- Erabiltzaileak higiene pertsonaleko baldintza egokietan edukitzea.
- Erabiltzaileen ahalmen fisikoak eta motorrak mantendu eta hobetzeko jarduerak egitea, eta haien ondoan egotea, zaintzea eta laguntza ematea.
- Ahoratzea erraztea eta hondakinak biltzea, haien behar dietetikoaren arabera.
- Sendagaiak ahotik, ondestetik eta bide topikotik ematea, eta jasotako argibideen arabera hotz/bero tratamendua egitea.

- Istripuen prebentziorako eta oinarrizko lehen laguntzetarako teknikak aplikatzea.
- Espazioak eta tresnak bizikidetzarako baldintza egokietan prestatu eta mantentzea.
- Ondoan egoteko eta gai pertsonalak ebazteko zereginak egitea.
- Oinarrizko egoera kognitiboari eusten laguntzea, jasotako jarraibideen arabera.
- Hautabidezko komunikazio-sistemak aplikatzea.
- Etxearen eta aurrekontuaren kudeaketa betetzen laguntzea, gastuak egokituta, beharrezkoa balitz.
- Norberaren ahalmena identifikatzea, eta orientazio-puntuak, laguntza eta aukerak onartzea, norberaren garapen pertsonalean eta profesionalean.
- Etorkizuneko garapenarekin lotzen diren egitura sozialak eta profesionalak identifikatzea, eta egokitze eta aurrera egiteko beharrezko printzipioak, harremanak eta portaerak ezagutzea.
- Bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartze aktiboa izatea, jarrera kritikoz eta arduratsuz, arazoak konpontzeko eta erabaki koherenteak hartzeko garaian.

C. *Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda*

- Lanbide-kualifikazio osoa:
 - Etxeko enplegua
 - Konpetentzia-atala: Etxebizitzen paretak, zoruak eta beirak garbitu eta mantentzea.
 - Konpetentzia-atala: Elikagaien prozesua gauzatzea horiek erosi, antolatu, manipulatu, prestatu eta kontserbatzeko faseetan.
 - Konpetentzia-atala: Jantziak eta etxeko arropa garbitzea, lisatzea eta adabatzea eta/edo jostea, eta oheak prestatzea.
 - Konpetentzia-atala: Esku hartu beharreko espazioen barruan kokatutako altzariak garbitzea.
- Lanbide-kualifikazio partzialak:
 - Pertsonentzako gizarte- eta osasun-laguntza etxean (SSC089_2, 295/2004 Errege Dekretua)
 - Konpetentzia-atala: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-laguntzaren premia duten pertsonen zuzenduta.
 - Konpetentzia-atala: Etxez etxeko laguntza psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-laguntzaren premia duten pertsonen zuzenduta.
Prestakuntza-kreditua: Oinarrizko laguntza psikosoziala etxean.
 - Konpetentzia-atala: Bizikidetzaren unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako jarduerak garatzea.
Prestakuntza-kreditua: Bizikidetzaren unitatearen aurrekontuaren kudeatzeko teknikak.

D. *Lanbide-ingurunea*

- Lanbide-esparrua
Langileak mendeko pertsonen laguntzeko laguntzaile gisa egingo du lan, medikuek ezarritako arauen pean, gizarte- eta osasun-laguntzaren esparruan, jarduera bere edo besteren kontura garatuta, esparru publikoan edo pribatuan, etxe partikularretan, osasun-etxeetan, osasun-erakundeetan, administrazio publikoetan (udaletakoak eta autonomikoak), irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan eta babespeko etxebizitzetan. Garbiketaren esparruan, etxebizitzetan eta edozein enpresa publiko edo pribatutan egingo du lan, bere edo besteren kontura (sektore horretan edo beste batzuetan) eta hainbat sektoretan lan egiteko ahalmenagatik nabarmenduko da.

- Lanbide eta lanpostu adierazgarrienak

Garbitzailea, etxeko sukaldaria edo lisatzailea, etxeko langilea, kristal-garbitzailea, etxez etxeko arretako laguntzailea, etxez etxeko laguntzako laguntzailea, eta pertsona adinduen, minusbaliatuen edo eriondoen zaintzailea.

2. IRAKASKUNTZAK

A. Nahitaezko moduluak eta prestakuntza-kredituak, berariazkoak eta orientazio eta tutoretzakoak

1. Paretak, zoruak eta kristalak garbitzea eta mantentzea
2. Elikagaiak eta produktuak erostea, eta etxean antolatzea, manipulatzeko, prestatzea eta kontserbatzea
3. Jantziak eta etxeko arropa garbitzea, lisatzea eta adabatzea eta/edo jostea, eta oheak prestatzea
4. Barneko altzariak garbitzea
5. Etxez etxeko higiena eta osasun-laguntza
6. Oinarrizko laguntza psikosoziala etxean
7. Bizikidetzaren unitatean aurrekontua kudeatzeko teknikak
8. Lantokiko prestakuntza
9. Orientazioa eta tutoretza

B. Nahitaezko prestakuntza-modulu orokorrak: berariazko ebazpen batean argitaratuko dira.

1. Prestakuntza-modulua: **PARETAK, ZORUAK ETA KRISTALAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA**

Kompetentzia-atal honi lotuta dago: Etxebizitzen paretak, zoruak eta beirak garbitu eta mantentzea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Beirak garbitzea, produktu egokiak erabilia

- Altuerari dagokionez, arrisku-baldintza bereziak identifikatu eta argudiatzea, eta horiei aurrea hartzeko jardunak zehaztea.
- Leihoetako beiren eta markoen ezaugarriak deskribatzea, eta garbiketa mota eta materialak, horien kokapena eta zikinkeria balioestea, garbiketa-prozeduran kontuan hartzeko.
- Leihoetako beiren eta markoen ezaugarriak kontuan izanda garbiketa-prozedura argudiatzea, eta garbiketarako tresna eta produktu egokiak deskribatzea.
- Informazio garrantzitsua ateratzea eta norberaren lana antolatzea, zereginen sekuentzia, kalkulaturako gauzatze-denbora eta istripuei aurrea hartzeko neurriak zehaztuta.
- Produktua gauzatzea eta hautaketa justifikatzea.
- Aukeratutako prozedura aplikatzea, hautatutako tresnak eta produktuak erabilia.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Beirak, leihoak eta markoak ikuskatzeko era deskribatzea, zikinkeria-hondarrak antzematea eta zuzenketa-prozedura azaltzea.

Paretak garbitzea, produktu egokiak erabilia

- Paretak, ateak, errodiak eta apaingarriak garbitzeko era identifikatzea (haien konposizioaren arabera), ekintzak, tresnak eta produktuak zehaztu eta aplikatzea, eta ekintzaren ondoriozko arriskuei aurrea hartzea.
- Etxeko garbigarriak gordetzeko baldintzak deskribatzea, horien ezaugarrien arabera, eta litezkeen arriskuei aurrea hartzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Erraztatze, lanbasa pasatzeko, mopa pasatzeko eta hautsa kentzeko garbiketa-teknikak azaldu eta praktikan jartzea, eta horiek aplikatzen direneko material motarekin lotzea.
- Orbanak garbitzeko prozeduraren hautaketa justifikatzea, horiek egon ohi diren gainazalak kontuan izanda, eta horiek garbitzea.
- Erreduzko etxebizitza bat garbitzeko maiztasun-taula bat egitea, denborak kontuan hartuta.
- Jardunaren testuinguruan garbiketa egiteko informazio garrantzitsua lortzea.

- Norberaren lana antolatzea, eta zereginen sekuentzia eta espero diren emaitzak lortzeko kalkulaturako gauzatze-denbora zehaztea.
- Gainazala osatzen duen material mota identifikatzea eta beharrezko garbiketa-teknika erabiltzea.
- Produktua hautatu eta dosifikatzea, haren aplikazioen arabera.
- Teknika eta produktua aplikatzea, eta esperotako emaitzak lortu direla egiaztatzea.

Zoruak eta alfonbrak garbitzea, produktu egokiak erabilia

- Zoru eta alfonbra motak antzeman eta bereiztea, horien materialak kontuan izanda eta laginak aurkeztetik abiatuta, eta horiek dagokien garbiketa-prozedurarekin lotzea.
- Etxebizitzaren zoruak garbitzeko teknikak azaltzea (xurgatzea, hautsa kentzea, erraztatzea, lanbasa pasatzea eta mopa erabiltzea) eta horiek material motarekin lotzea.
- Garbitu beharreko materialaren arabera, erabilera errazeko aparatu elektromekanikoen eta etxe-erabilerako produktuaren hautaketa justifikatzea.
- Ereduzko etxebizitza batean zoruak eta alfonbrak garbitzeko jarraitu beharreko prozesua azaltzea.
- Jardunaren testuingurua behatuta, zoruak eta alfonbrak garbitzeko informazio garrantzitsua lortzea.
- Bere lana antolatzea, eta zereginen sekuentzia eta kalkulaturako gauzatze-denbora zehaztea.
- Zorua estaltzen duen materiala identifikatzea eta garbiketa-teknika egokia hautatzea.
- Esku hartzeko espazioaren barruan dauden eta lana oztopatzen duten objektuak eta/edo altzariak lekualdatu edo berriro ipintzea.
- Ingurumenari kalterik egingo ez dion produktua hautatzea.
- Beharrezko prozedura eta produktua aplikatzea, nahi diren emaitzak lortzeko.
- Beharrezkoa izanez gero, leihoak eta ateak zabaltzea erabilitako likidoak behar bezala lehortzeko ezinbesteko denboraz.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.

Etxebizitzaren garbiketan paretak, zoruak eta beirak ezaugarritzea

- Motak eta osatzen direneko materialak.
- Tratamenduak.
- Etxe-erabilerak tresnak, garbiketa-erremintak eta etxetresna elektriko txikiak: motak, erabilerak eta haiei lotutako arriskuak.

Etxebizitzetako gainazalak, zoruak eta beirak garbitzeko teknikak eta produktuak

- Garbiketa-teknikak: erraztatzea, lanbasa pasatzea, mopa erabiltzea, xurgatzea, garbitzea, hautsa kentzea.
- Etxeko garbigarriak: motak, erabilera, manipulazioa, etiketak, arriskuak.

Garbiketa-lanaren prozedura eta antolamendua etxebizitzan

- Eginkizunak. Denbora. Espazioa.
- Antolamendua eta maiztasuna.
- Laneko arriskuei buruzko araudia.
- Etxeko arriskuen prebentzioa.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribaturako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribaturako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.
Ikasgela-lantegia, 60 m²-koa.

2. Ekipamendua

Tresnak errazak eta etxetresna elektriko txikiak. Etxeko garbigarriak. Eskularruak.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Etxebizitzaren paretak eta beirak garbitzearekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea.
Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:

- Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.
 - Lanbide-arlo honekin lotzen diren kompetentzien alorrean gutxienez hiru urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera kompetentzia pedagogikoa izatea.

2. Prestakuntza-modulua: **ELIKAGAIAK ETA PRODUKTUAK EROSTEA, ETA ETXEAN ANTOLATZEA, MANIPULATZEA, PRESTATZEA ETA KONTSERBATZEA**

Kompetentzia-atal honi lotuta dago: Elikagaien prozesua gauzatzea horiek erosi, antolatu, manipulatu, prestatu eta kontserbatzeko faseetan.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Elikagaiak erostea

- Jakitokian beharrezkoak diren elikagaien eta produktuaren gabezia behatu eta egiaztatzeko prozesua hautatzea.
- Erosketa-zerrenda prestatzea: publizitate-liburuxkak kontsultatzea eta produktuaren kalitate/prezio erlazioan gomendagarriena dena hautatzea.
- Produktuak erostea, etxeko beharren, aurrekontuaren eta etxebizitzak duen gordetze-edukieraren arabera haien lehentasuna ezarrita.
- Ezarritako aurreikuspenaren aurrean gastatutakoa balioestea.
- Erosketa zein dendatan egin hautatzea, dauden denda motak kontuan izanda eta indarrean dagoen araudia betetzen dutela egiaztatuta, segurtasun-neurri gisa.
- Aurreikusitako elikagaiak eta produktuak erosteko jarraitu beharreko urratsak zehaztea, horiek segurtasun-baldintzetan garraiatzeko baldintzak adierazita.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Etiketen informazioa ezarritako araudiaren arabera interpretatzea.
- Laneko arriskuei buruzko araudiaren alderdiak antzeman eta zerrendatzea.

Elikagaiak gorde eta kontserbatzea

- Produktuak behatu eta bereiztea, gorde eta kontserbatzeko behar duten jardun mota kontuan izanda.
- Produktuak ipini eta gordetzeko espazioak identifikatu eta justifikatzea, horien ezaugarriak, kontserbatzeko baldintzak eta irisgarritasuna kontuan izanda.
- Elikagai eta produktu batzuek gordetzeko duten premia identifikatzea, haien ezaugarrien eta beharren arabera.
- Elikagaiak manipulatzeko, gorde eta kontserbatzeko beharrezkoa dutenean, higie- eta desinfekzio-neurriak zorrotz beteta.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.

Elikagaiak prestatu eta manipulatzeko

- Sukalde-errezetak interpretatzea, eta jankideen kopurua eta beharrak kontuan izanda erabili beharreko kantitateak eta denbora egokitzea.
- Menuak prestatzeko erabiltzen diren tresnak eta etxetresna elektrikoak hautatzea.
- Janaria prestatu aurreko prozedurak deskribatzea: osagaiak desizoztea, garbitzea, moztea eta bestelakoak.
- Etxeko sukaldaritza-teknikak azaltzea (erretzea, egostea, frijitzea edo bestelakoak), kasuak kasu adierazita: aplikazio-faseak, prozedurak, denborak, tresnak, segurtasun-baldintzak.
- Elikagaiak kontserbatzeko etxeko teknikak deskribatzea: hoztea, izoztea, deshidratatzea edo bestelakoak.
- Jankideen ezaugarrien eta beharren arabera menu ba prestatu eta egitea, segurtasun- eta higie-baldintzak ziurtatuta.
- Emaizta lortzeko zereginaren sekuentzia deskribatzea eta gauzatze-denbora zehaztea.
- Kaltegabatasuna ziurtatuko duten tratamenduak hautatzea (fruta, barazkiak edo, ireki aurretik, latak garbitzen saiatuta).
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Janaria aurretik prestatzea, desizoztea, garbitzea, moztea eta bestelakoak.
- Produktuak prestatzea, behar duten sukaldaritza-teknika kontuan izanda, eta elikagaiaren ezaugarrien eta jankideen beharren arabera.
- Beharrezkoa izanez gero, elikagaiak kontserbatzeko tresnak prestatzea.

- Elikagaiak manipulatu, prestatu eta kontserbatzeari buruz indarrean dagoen araudia identifikatzea, betiere segurtasun-baldintzak ahalbidetzeko.

Sukaldean erabilitako materialak eta tresnak garbitzea

- Elikagaiak kontserbatu, prestatu eta kontsumitzeko erabilitako baxera eta tresnak garbitzeko prozedura hautatu eta azaltzea.
- Ura arrazoiz erabiltzea ziurtatzeko, eskuzko garbiketa eta ontzi-garbigailuaren erabilera azaltzea.
- Janaria prestatzean eta kontsumitzean sortutako hondakinak sailkatu eta baztertzeko prozesua azaltzea.
- Menuak prestatzeko erabilitako espazioak eta etxetresna elektrikoak garbitzeko era deskribatzea, segurtasun-arauak kontuan izanda.
- Tresna, osagarri eta etxetresna elektriko garbiak gaitutako espazioetan ipintzea.
- Erabilitako gainazalak eta espazioak garbitzeko prozedura ezartzea, ondoren elementuak berriz non kokatuko diren aurreikusita, hasierako ordena ziurtatzeko.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.

Etxeetarako elikagaiak eta produktuak erosteko teknikak

- Erosteko prozedurak: etxearen beharrak, aurrekontua eta gordetze-edukiera. Erosketa-zerrenda.
- Publizitatea eta eskaintzak.
- Etiketak.
- Jakitokia: motak, antolamendua eta mantentze-lanak.
- Dendak: motak.
- Alde onak eta txarrak.

Etixerako elikagaiak eta produktuak biltegitatu eta antolatze teknikak

- Elikagaiak eta produktuak sailkatu eta ipintzea.
- Hoztu eta izozteko neurriak.
- Iraungipena.

Elikagaiak etxean prestatzea

- Prestatu aurreko prozedurak. Etxeko sukaldaritza-teknikak: erretzea, egostea, frijitzea, zuritzea, txikitzea eta bestelakoak.
- Sukaldeko tresnak eta etxetresna elektrikoak: argibideen eta erabileraren eskuliburua.
- Aurkeztea eta kontsumorako mantentzea.

Etxeko sukaldea garbitzea

- Garbigarriak: motak, manipulazioa eta lotutako arriskuak. Garbitzeko prozedurak.
- Etxetresna elektrikoak.
- Ingurumen-ikuspegia.
- Uraren arrazoizko erabilera.
- Hondakinak eta birziklatzea: motak, sailkapena, baztertzeta eta edukiontzia.

Arriskuen prebentzioa etxeko elikagaiak eta produktuak erosi, antolatu, manipulatu, prestatu eta kontserbatzean

- Laneko arriskuei buruzko araudia eta elikagaien manipulazioa.
- Lan-jarduerari lotutako arriskuak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren kompetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Ikasgela-lantegia, 60 m²-koa.

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Ekipamendua

Elikagaiak. Errezeta-liburuak. Etxetresna elektrikoak, eta sukaldaritzako osagarriak eta trenak. Garbigarriak.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Erosi, antolatu, manipulatu eta kontserbatzeko faseetan elikagaiak prestatzearekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.
 - Lanbide-arlo honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez hiru urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabeko konpetentzia pedagogikoa izatea.

3. Prestakuntza-modulua: JANTZIAK ETA ETXEKO ARROPA GARBITZEA, LISATZEA ETA ADABATZEA ETA/EDO JOSTEA, ETA OHEAK PRESTATZEA

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: Jantziak eta etxeko arropa garbitzea, lisatzea eta adabatzea eta/edo jostea, eta oheak prestatzea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Jantziak eta etxeko arropa garbitu eta lehortzea

- Arropa sailkatu eta prestatzeko jarduna identifikatu eta justifikatzea, hura garbitzen hasi aurretik.
- Garbitzeko prozedura motak azaltzea, horien alde onak eta txarrak adierazita, eta jantzi motekin lotuta, fabrikatzailearen jarraibideen arabera.
- Arropa garbitu eta lehortzeko etxetresna elektrikoak deskribatzea, eta funtzionamendu-eskuliburuak interpretatzea, haien erabilera eta kontserbatzeko era, eta erabili beharreko produktuak adierazita.
- Arropa garbitu eta biltzeko prozesua azaltzea, horren baldintzatzaileak balioetsita.
- Erabili beharreko etxetresna elektrikoan arropa garbitzea galaraziko duen eta jantzia hondatuko duen objektu oro jasotzea.
- Arroparen etiketak interpretatzea eta orban motak aztertzea, ondoren garbiketa-prozesuaren arabera hura sailkatzeko.
- Arropa eskuz edo makinaz garbitzea eta ondoren lehortzea, fabrikatzailearen argibideei jarraituz eta jantziaren egoera egokia ziurtatuta.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Arropa bere ezaugarrien arabera sailkatzea, ondoren lisatzeko.

Arropa lisatzea

- Arroparen etiketak aztertzea, fabrikatzailearen gomendioaren arabera ekintza hautatzeko.
- Beharrezko etxetresna elektrikoak, prozedura osagarriak eta produktuak deskribatzea, eta horien erabilera argudiatzea.
- Lisatzeko prozedura antzeman eta argudiatzea, haren erabileraren baldintzatzaileak adierazita.
- Ehun mota aztertzea eta etiketak interpretatzea, lisatzeko jarraitu beharreko prozedura hautatzeko.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Arropa lisatzea, jardueraren ondoriozko arriskuak saihestuta, eta espero diren emaitzak egiaztatzea.
- Jantziak sailkatzea, armairuetan edo dagozkion altzarrietan gordetzea eta haien ordena zaintzea.
- Lisatzeko makina erabiltzeari lotutako arriskuak identifikatzea eta horien prebentzioa azaltzea.

Arropa jostea eta/edo adabatzea

- Arroparen egoera egiaztatzeko bidea ematen duten alderdiak identifikatu eta azaltzea.
- Tresnak erabili beharreko etxeko joste-teknikekin lotzea, jantzien eta etxeko arroparen motak, eta konponketa-beharrak kontuan izanda.
- Etxeko joste-teknikak identifikatu eta azaltzea (albaintzea, errematatzea, barrena sartzea eta botoiak jostea, besteak beste), eta horiek ehun, jantzi edo etxeko arropa motarekin lotzea.
- Jostotzara edo antzekoa ordenatuta edukitzeko modua deskribatzea, eta hura gordetzeko leku egokienak identifikatzea.
- Jantzia identifikatzea, eta behar duen jostura edo adabakia antzematea.

- Etxeko joste-teknikak hautatzea, ehun motaren eta horren beharraren arabera: zulo txikiak eta urratuak, askatutako krisketak eta/edo botoiak, desegindako azpildurak, irekitzen diren josturak edo bestelakoak.
- Jantzia josi eta adabatzeko prozesua egitea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Jostotzara, tresnak eta materialak aurreikusitako lekuan ordenan gordetzea.

Oheak prestatzea

- Ohe-jantzien eta osagarrien motak bereiztea, alde onak eta txarrak bereizita.
- Ohearen eta erabili beharreko arroparen arabera jarraitu beharreko prozedura azaltzea, osagarriak ipintzeko era adierazita.
- Ohe-arropa hautatzea, mota, temperatura eta norberaren hobespenak kontuan izanda.
- Zeregina egiteko sekuentzia logikoa eta kalkulaturako gauzatze-denbora ezartzea, emaitzak lortzen laguntzeko.
- Ohea egin aurreko zereginak gauzatzea, hori ahalbidetuko duten ekintzen bidez, eta lortutako emaitza egiaztatzea.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Ohe-arropa aldatzeko baldintzak zehaztea, haren egoera kontuan izanda.
- Lastaira irauli eta biratzeko denbora eta era antzematea, fabrikatzailearen argibideei jarraituz.
- Ohea egiteari lotutako litezkeen arriskuak identifikatzea eta gauzatu beharreko jardun prebentiboak adieraztea.

Etxeko arropa eta jantziak etxean garbitu, lehortu eta lisatzeko prozedurak

- Etiketak: ikonoak interpretatzea eta jarduna.
- Etxetresna elektrikoak eta osagarriak: argibideen eta erabileraren eskuliburua.
- Produktuak: motak, ezaugarriak eta erabilera.
- Arropa sailkatu eta prestatzea. Garbitu, lehortu eta lisatzeko prozedurak. Espazioak.

Jantziak eta etxeko arropa (ehunak) josi eta adabatzeko prozedurak

- Motak eta ezaugarriak.
- Josteko tresnak: motak, erabilera.
- Etxeko joste-teknikak: albaintzea, errematatzea, barrena sartzea eta botoiak jostea.

Etxeko oheak prestatzea

- Oheak: motak eta jardunak horien aurrean.
- Ohe-jantzia: motak, osagarriak, klimatologia.
- Lastairak: motak, ezaugarri nagusiak eta fabrikatzailearen jarraibideak.

Arriskuen prebentzioa etxeko arroparen eta jantzien etxeko tratamenduan

- Laneko arriskuei buruzko araudia.
- Segurtasun-baldintzei eustea.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak:

Ikasgela-lantegia, 60 m²-koa.

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Ekipamendua

Etxeko arropa eta jantziak. Arropa tratatzeko etxetresna elektrikoak eta osagarriak. Arropa-garbigarriak. Etiketak eta piktogramak. Jostotzarak eta osagarriak.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Arropa garbitu, lisatu, adabatu eta jostearekin, eta oheak prestatzearekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.

- Lanbide-arlo honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez hiru urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera konpetentzia pedagogikoa izatea.

4. Prestakuntza-modulua: **BARNEKO ALTZARIAK GARBITZEA**

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: Esku hartu beharreko espazioen barruan kokatutako altzariak garbitzea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Altzari motak zehaztu eta antzematea

- Garbitu beharreko espazioetako altzarien materialak identifikatzea, eta horiek garbitzeko prozedurekin lotzea.
- Altzarietan jalkitzen diren hondakin motak, sortzen diren orbanak eta metatzen duten zikinkeria identifikatzea.
- Altzarien materialen eta horiek garbitzeko eskakizunen artean sortzen den lotura deskribatzea.

Ettxeko altzariak garbitzeko gehien erabiltzen diren erremintak eta produktuak sailkatzea

- Garbitzeko erremintak edo tresnak deskribatzea, horien eginkizunak, erabiltzeko arauak, manipulazioari lotutako arriskuak eta beharrezko mantentze-lanak azalduta.
- Garbitu beharreko altzari motaren arabera erremintak edo tresnak erabili izana justifikatzea.
- Garbitzeko tresnak mantentzeko prozedurak azaltzea.
- Garbigarriak horien aplikazioen arabera sailkatzea, eta haien propietateak, alde onak, alde txarrak eta aplikatzeko erak azaltzea.
- Ingurumenari kalte egiten ez dioten altzarietarako garbigarriak identifikatzea.
- Altzarien garbigarrien etiketak eta fitxa teknikoa interpretatzea, eta ezarritakoaren arabera haiek manipulatzeko.
- Garbigarria altzarien arabera hautatzea eta hautaketa justifikatzea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Produktu toxikoen hondakinak ezabatzearen onurak argudiatzea, ingurumena babesteko araudia kontuan izanda.
- Erabilera arduratsua kontuan izanda, ura eta energia orekaz kontsumitzearen ondorioak deskribatzea.

Paperontzien hondakinak ezabatzea

- Produktu toxikoen hondakinak ezabatzearen onurak argudiatzea, ingurumena babesteko araudia kontuan izanda.
- Egin beharreko zereginen arabera laneko arriskuak identifikatzea, eta horiei aurrea hartzea.
- Paperontzi baten baldintza higienikoak leheneratzeko ekintzak deskribatu eta aplikatzea, poltsa manipulatzeko eta berritzean hartu beharreko arretak zehaztea, hondakinak kentzea eta paperontziaren higienizazioa ziurtatzea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.

Garbigelak higienizatzea

- Zeregina egiteko sekuentzia logikoa eta kalkulaturako gauzatze-denbora zehaztea.
- Beharrezkoa izanez gero, ingurumenari kalterik egingo ez dion produktua hautatzea, erabilera-eta dosifikazio-argibideei jarraituz.
- Komun-ontzi motaren arabera, nahi diren emaitzak lortzeko prozedurak, tresnak eta produktuak aplikatu eta hautatzea.
- Erabilitako tresnak egoera onean mantentzea, haien kontserbazioa ziurtatzeko.
- Esku hartu deneko lekua ondoren behatzea, kendu ez diren zikinkeria-arrastoak antzeman ahal izateko.
- Osasun publikoa babesteko prozedura gisa, garbigelak higienizatu eta desinfektatzearen garrantzia argudiatzea.
- Garbigelako banagailuak antzematea eta horien funtzionamendua egiaztatzea.
- Aurretiazko zereginak egitea: ingurunea aireztatzea eta bertako hondakin solidoak ezabatzea, ondoren hura garbitu ahal izateko.
- Komun-ontzietan produktu desinfektatzaileak aplikatzea, fabrikatzaileak kalkulaturako denboraz jardun dezaten ziurtatzea eta komun-ontzi mota bakoitzerako berariazko tresnak erabiltzea.
- Osagarriak, ispiluak eta paramentuak garbitzeko prozedurak, tresnak eta produktuak hautatu, prestatu eta aplikatzea, eta horien egokitzapena ziurtatzea.

- Produktua erabilerari eta dosifikazioari buruzko argibideei jarraituz prestatzea, oinarrizko segurtasun-printzipioak kontuan izanda.
- Komuneko paperaren, eskuetako paperaren, xaboiaren eta bestelako materialen banagailuak ikuskatu eta berritzea, ondoren berriz erabili ahal izateko.
- Zorua lanbasa pasatzea, haren higiene eta desinfekzioarako produktu egokia aplikatuta.
- Zereginen erregistro-orriak betetzea.
- Egin beharreko zereginetan laneko arriskuak identifikatzea eta horiei aurrea hartzea, toki horretan eta esku-hartze horretarako ezarritako arauak kontuan izanda.

Altzariak garbitzea

- Altzari motak.
- Garbitzeko prozedurak.
- Garbigelak garbitzea: higienizatzea eta desinfektatzea.
- Garbitzeko prozedurak: komun-ontziak, osagarriak eta ispiluak. Zereginen erregistro-orriak.

Material kontsumigarria altzari-garbitzetaren esparruan

- Garbitzeko erremintak edo tresnak.
- Garbitzeko makinak eta/edo tresnak.
- Norbera babesteko ekipamendua.
- Altzari-garbigarriak.
- Manipulazioa.
- Dosifikazioa.
- Biltegitratzea.

Altzariak garbitzeko teknikak

- Lana antolatzea.
- Eginkizunak. Denbora. Espazioa.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Ikasgela-lantegia, 60 m²-koa.

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Ekipamendua

Erreminta eta tresna errazak. Norbera babesteko bitartekoak. Produktu kimikoak.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Espazioen barruan kokatutako altzariak garbitzearekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren prestakuntza akademikoa izatea, edo goragoko mailakoa.
 - Lanbide-arlo honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez hiru urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera konpetentzia pedagogikoa izatea.

5. Prestakuntza-modulua: ETXEZ ETXKO HIGIENEA ETA OSASUN LAGUNTZA

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-laguntzaren premia duten pertsonen zuzenduta.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Mendeko pertsonen oinarrizko beharrak antzeman eta identifikatzea

- Esku-hartzearen xede diren kolektiboaren berezko aldaketa biologikoak, psikologikoak eta sozialak alderatzea horiek pertsonaren eguneroko moldaeran dakartzaten zailtasunekin.
- Mendeko pertsonen berezko narriadura pertsonalaren eta/edo sozialaren agerpen nagusiak identifikatzea.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari eta dagokien erreferentziazko profesionalari egokitzeko aldiari, mendeko pertsonen jarrera eta portaera ezaugarriak, eta horien ingurunea deskribatzea.
- Mendeko pertsona eta kolektiboekiko esku-hartze sozialaren printzipio etikoak, jarrerak eta balioak argudiatu eta azaltzea.
- Erabiltzailearen narriadura identifikatzea, eta horrek autonomia pertsonalean eta eguneroko moldaera oinarritzekoan, pertsonalean eta sozialean duen eragina zehaztea.
- Agertzen diren portaera profesionalak identifikatzea.
- Pertsonaren eta haren ingurukoaren parte-hartzea identifikatzea.
- Erabiltzailearekin eta/edo haren familiarekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko jarrera profesional egokiak zehaztea.
- Erabiltzailearekin eta haren ingurukoekin ezarritako harreman-loturak (afektiboak, araukoak, nortasunekoak) identifikatzea.

Mendeko pertsonen higiene pertsonalerako ekintzak gauzatzea

- Osasun-egoeraren eta mendekotasun-mailaren arabera mendeko pertsonak batek behar dituen laguntza higienikoen motak zerrendatzea, eta haren inguruneak bete beharreko higiene- eta osasun-baldintzak identifikatzea.
- Larruazalaren ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatzea, eta presioaren ondoriozko ultzerak sortzeko mekanismoak eta horiek sarri agertzen diren leku anatomikoak azaltzea, bai eta prebentzio-neurri nagusiak eta haiek tratatzeko osasun-produktuak ere.
- Garbitasun eta higiene pertsonalerako prozedurak deskribatu eta aplikatzea, eta horiek gauzatzeko beharrezko produktuak, materialak eta laguntza teknikoak zehaztea, kontuan izanda pertsonaren egoera eta beharrak (pertsona inkontinente eta/edo kolestomizatuentzat barne), eta profesionalaren babes-neurriak.
- Protesiak garbitu eta kontserbatzeko teknikak deskribatu eta aplikatzea, erabiltzailearen egoera eta beharrak kontuan izanda beharrezko materialak zehaztuta.
- Erabiltzailearen heriotzaren aurrean oinarritzeko diren prozedurak (hilotzak jantzeko) deskribatzea, horiek zuzen egiteko beharrezko materialak eta produktuak zehaztuta.
- Etxean eskuragarri dauden eta maiz erabiltzen diren oheen, eta garbitasunerako eta atsedenerako osagarri eta laguntza teknikoak motak azaldu eta identifikatzea, eta prestaketa-teknikak aplikatzea.
- Ohe mota bakoitza egiteko teknikak aplikatzea, pertsonaren “erosotasun” beharrak eta mendekotasun-maila kontuan izanda.
- Pertsonaren gizarte- eta osasun-beharrei erantzuteko jardueretan hark eta bere ingurukoek parte hartzeko teknikak identifikatzea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.

Gaixoak mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak eginarazteko oinarritzeko ekintzak gauzatzea

- Mendeko pertsonak mobilizatzeko, joan-etorriak eginarazteko eta ohean kokatzeko tekniken (haien gaitasun motorrari eusten eta hobetzen laguntzen dutenak) ezaugarri eta aplikazio ohikoenak deskribatzea, haien egoera eta baldintzak kontuan izanda.
- Lokomozio-aparatuaren ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak azaltzea.
- Behar bezala ezaugarritutako egoeretan, eta lekualdatzeko zerbitzuan bertan ere, erabiltzailearen eta haren zaintzaile nagusien prestakuntzan eta orientazioan laguntzen parte hartzea, haien gaitasun motorrari eusten eta hobetzen laguntzeko.
- Mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak aplikatzea, pertsonaren “erosotasun” beharrak eta mendekotasun-maila kontuan izanda.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Mendeko pertsonentzat, joan-etorriak egin, lekualdatu eta mobilizatzeko laguntza teknikoak erabili eta egokitzea.

Medikuaren agindupean, sendagaiak ahotik, bide topikotik eta ondestetik ematea, eta oinarritzeko bero- eta hotz-tratamenduak aplikatzea

- Giza organismoaren gainean hotzak eta beroak duten eragina, eta horien indikazioak eta kontraindikazioak deskribatzea.
- Sendagaiak emateko bide ohikoenen ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak deskribatzea.
- Sendagaiak zenbait bideetatik emateko beharrezko materialen ezaugarriak azaltzea.
- Aerosolterapiako eta oxigenoterapiako teknikak aplikatzeko prozedurak, eta horiek zuzen gauzatzeko beharrezko materialak azaltzea.
- Sendagaiak emateari lotutako arrisku nagusiak deskribatzea, sendagai motaren, emateko bidearen, pertsonaren ezaugarrien eta medikuaren jarraibidearen arabera.

- Etxez etxeko zaintzen protokoloan zehaztuta dauden bizi-konstanteak hartzeko teknikak gauzatzea.
- Hainbat egoeratan, sendagaiak ahotik, bide topikotik eta ondestetik ematea, ezarritako jarraibideak beteta.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.

Elikagaiak ahoratzea eta hondakinak biltzea errazten duten ekintzak gauzatzea

- Dieta osasungarri baten osaera identifikatzea, eta gizabanakoaren behar nutritibo-dietetikoak deskribatzea, haren ezaugarri fisiologikoak, patologikoak eta jokabidekoak kontuan izanda.
- Egunko eta/edo asteko menu-proposamenak prestatu eta planifikatzea, erabiltzaileen ezaugarriak eta dauden agindu dietetikoak kontuan izanda.
- Digestio-aparatuaren, aparatu endokrinoaren eta gernu-aparatuaren oinarritzko ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak deskribatzea.
- Adinduen eta eriondoen elikaduraren berariazko ezaugarriak azaltzea.
- Hainbat patologiarik aplikatutako agindu dietetikoak identifikatu eta maneiatzea, eta horietako bakoitzean dietak duen eragina aztertzea.
- Ahotik elikagaiak emateko teknikak deskribatzea, pertsonaren mendekotasun-mailaren eta ahoratzen laguntzeko beharrezko materialen arabera.
- Teknika ohikoenak azaltzea, erabiltzaile mota bakoitzaren hondakinak biltzea eta ezarritako higie- eta osasun-arauak deskribatzea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Ahoratzen laguntzeko teknikak aplikatzea, erabiltzaile bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan izanda.

Etxean oinarritzko eta premiazko osasun-laguntza ematea

- Traumatismoak eragiten dituzten seinale eta sintoma ohikoenak (hausturak, zaintiratuak eta luxazioak) azaltzea, eta immobilizazio-maniobra egokiak zehaztea.
- Dagokion mailan, bihotz-biriketako bizkortze-teknikak aplikatzeko oinarritzko edukiak eta sekuentziak azaltzea.
- Hedaduraren eta sakoneraren arabera erredura motak azaltzea, eta bakoitzerako premiazko osasun-laguntzarako neurriak deskribatzea.
- Zaurien eta odoljarioen motak azaltzea, motaren arabera berehalako jardun-maniobrak deskribatzea.
- Larrialdietarako etxeko botikinak oro har eduki behar dituen elementuen gutxieneko edukiaren eta indikazioen oinarritzko zerrenda deskribatu eta prestatzea.
- Sintoma adierazgarrienen arabera intoxikazio mota nagusiak bereiztea, eta sartzeko bideak eta ezabatzeko metodoak zerrendatzea.
- Urrutiko kontsulta batean, gertaerari eta istripua izan duenari buruzko informazioa helarazi eta zehatz azaltzea medikuari, eta laguntza eskatzea.
- Heskailuak aplikatzea eta ferula sinpleak ipintzea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- BBBrako oinarritzko maniobrak egitea.
- Hainbat lekutan (bizkarrezurra, goiko gorputz-adarrak, beheko gorputz-adarrak eta politraumatismoa) kokatutako hausturak immobilizatzeko maniobrak egitea.
- Odoljarioak inhibitzeko maniobrak egitea.

Mendeko pertsonen ezaugarriak eta beharrak

- Zahartze-prozesua.
- Gaixotasuna eta eriondoa.
- Minusbaliotasunak: kontzeptua, sailkapen eta etiologia ohikoak, ezaugarriak eta beharrak. Minusbaliotasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea, laguntza eta autodeterminazioa.

Etxez etxeko laguntza

- Mendeko pertsonak dituzten bizikidetz-unitateak: tipologia. Eginkizunak. Zaintzaile nagusien beharrak eta arriskuak.
- Mendeko pertsonenei zuzendutako zuzeneko laguntzako zerbitzuak, programak eta profesionalak: ezaugarriak. Egitura funtzionala. Diziplina arteko taldea eta zuzeneko laguntzako profesionalaren eginkizuna.
- Zaintzailea nagusiak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak.
- Premia bereziak dituzten pertsona eta kolektiboekin esku hartzeko printzipio etikoak. Jarrerak eta balioak.

- Pertsonentzako erabateko laguntza. Laguntza leuntzeko teknikak. Laguntza-erlazioaren dinamika: egokitzapena, zailtasunak, mugak eta arrisku psikologikoen prebentzioa; edo dolu-egoeretako esku-hartzea.
- Laguntza fisikoko jardueren bilakaera funtzionala eta garapena behatu eta erregistratzea. Etxez etxeko egoeretan aplikatzen diren behaketa-teknikak eta -tresnak.
- Eguneroko bizitzarako laguntza teknikoak eta teknologikoak.

Mendeko pertsonaren higiena eta garbitasuna

- Larruazaleko organoaren printzipio anatomofisiologikoak eta gorputz-higienearen oinarriak. Patologia ohikoenak.
- Gorputz-garbitasun eta higienarako teknikak etxez etxeko laguntza tipologiaren arabera.
- Presioaren ondoriozko ultzerak. Prebentzioa eta tratamendua.
- Ohe, osagarri eta mihiseria motak. Oheak prestatzeko teknikak.
- Paziente inkontinentearentzako eta kolostomizatuarentzako zaintzak.
- Infekzioen prebentzioa eta kontrola.
- Hil ondoko zaintzak. Hilotza prestatzearen helburua.

Mobilizatzea, lekualdatzea eta joan-etorriak egitea

- Giza gorputzaren sostengu- eta mugimendu-printzipio anatomofisiologikoak. Patologia ohikoenak. Giltzaduren biomekanika.
- Jarrera anatomikoak.
- Mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak.

Elikaduraren eta nutrizioaren printzipioak

- Digestio-sistemaren eta sistema endokrinoaren printzipio anatomofisiologikoak. Patologia ohikoenak.
- Elikaduraren eta nutrizioaren kontzeptuak. Elikagaiak. Sailkapen funtzionala.
- Energiaren eta mantengaien inguruko gomendioak. Gomendatutako ahorakina. Nutrizio-etiketak interpretatzea. Dieta osasungarria. Dietaren kalitatea.
- Gizarte garatuen nutrizio-arazoak.
- Dieta motak.

Familia-dieta, eta eguneko eta asteko menuen plangintza

- Etxeko anoak eta neurriak.
- Familia-menuaren plangintza.
- Zaharraren eta eriondoaren elikadura.

Sendagaiak eta elikagaiak ematea. Hondakina biltzea. Bizi-konstanteak

- Metabolismoaren bilakaera bizi-zikloan.
- Farmakologia orokorraren printzipioak.
- Sistema kardiobaskularraren, arnasakoaren eta irazlearen printzipio anatomofisiologikoak. Lotutako patologia.
- Aho, bide topikotik eta ondeste bidezko sendagaiak, aerosolak eta oxigenoa prestatu eta metako teknikak. Hotza eta beroa aplikatzeko teknikak.
- Ahotik eta bide enteraletik elikatzea. Ahoratzeko laguntza teknikoak. Ahoratzen laguntzea. Mendeko pertsona eta haren zaintzaile nagusiak orientatzea.
- Hondakina biltzeko teknikak.
- Bizi-konstanteak: tenperatura, arnas maiztasuna, presioa arteriala eta bihotz-maiztasuna. Kontzeptuak, teknikak eta prozedurak.

Lehen laguntzak

- Intoxikazioak.
- Traumatismoak. Heskailuak jartzea eta immobilizazioak.
- Botikinak mantentzea.
- Bihotz-biriketako bizkortze-teknikak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Gizarte- eta osasuneko ikasgela-lantegia, 60 m²-koa.
Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Ekipamendua

Erabiltzaileari eta haren inguruneari buruzko banakako informazioa. Pertsonei laguntza eta zaintzak emateko prozedurak. Egin beharreko jardueren programazioak. Erabiltzen diren tekniken protokoloak. Erabiltzailearen gauza pertsonalak. Mihiseria. Egoera hauetan dauden pertsonen laguntza fisikoa emateko erabiltzen diren materialak eta tresnak: garbiketa, sendagaiak prestatu eta ematea, elikagaiak ematea, ohe artikulatuak, makuluak, gurpil-aulkiak, eskorgak, bainu-aulkiak, protesiak eta ortesiak, aerosolterapiako aparatu eramangarriak eta oxigenoa ematekoak. Presioaren ondoriozko prebentzioan eta infekzioen prebentzioan erabiltzen diren materialak, eta denetariko material klinikoa infekzioak kontrolatzeko eta hondakinak biltzeko. Erregistratzeko dokumentazioa: gorabeheren eta jarraipenaren orriak, tratamendu-orriak, dieten orriak...

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Gizarte- eta osasun-beharrak dituzten pertsonen zuzenduta, etxetik etxeko laguntza fisikoko esku-hartzeak garatzearekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den diplomatuaren prestakuntza akademikoa, gutxienez.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez 3 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera egiaztatutako konpetentzia pedagogikoa izatea.

6. Prestakuntza-kreditua: **OINARRIZKO LAGUNTZA PSIKOSOSIALA ETXEAN**

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: Etxetik etxeko laguntza psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-laguntzaren premia duten pertsonen zuzenduta.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Mendeko pertsonen etxean egoteko ekintzak gauzatzea

- Mendeko pertsonen eguneroko moldaeran laguntzeko behar nagusiak identifikatzea.
- Moldaera autonomoan eragina duten etxeko eta horren ingurune inguru-faktoreak eta elementu espazialak identifikatzea.
- Dagokion mailan, kolektiboaren arabera, autonomia pertsonaleko ohiturak sortu, mantendu eta hobetzera zuzendutako esku hartzeko teknikak eta prozedurak deskribatzea.
- Etxeko espazioen, altzarien eta tresnen banaketa, eguneratzea eta seinaleztapena zehaztu eta aplikatzea, pertsonen behar psikosozialetara egokituta, eta haien mendekotasunaren, ohituen eta segurtasunaren arabera.
- Dagokion mailan, aurreikusitako behaketa-teknikak eta -tresnak aplikatzea, bai jardueren garapenari dagokionez, bai eta pertsonaren agerpenari dagokionez ere; behar bereziak, arrisku-faktoreak, eta bilakaera fisikoa eta psikosoziala identifikatzea; eta lortutako datuak jasotako jarraibideen arabera erregistratzea.
- Mendeko pertsonen etxean egotea eta laguntzea, haien autonomia pertsonala erraztuko duten irizpideak eta estrategiak aplikatuta.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Jarduera garatzeko beharrezko baliabide espazialak eta materialak prestatu eta aplikatzea, medikuaren aginduak kontuan izanda.
- Jardueran zehar sortzen diren gatazkak edo gorabeherak ebaztea; prozedura, teknika eta estrategia egokiak, eta, hala badagokio, bere eskumena gainditzeko dutenean, ezarritako bideak erabilia.

Etxean, mendeko pertsonen gaitasun kognitiboak eta jokabide ohikoenak mantendu eta hobetzea

- Zaharren, minusbaliatuen eta gaixoen motibazioak eta ikaskuntzak dituzten berriarazko ezaugarriak deskribatzea, eta jardun-estrategia egokienak zehaztea.
- Gaitasun kognitiboak mantendu eta hobetzera zuzenduta dauden alde aurretik ezarritako ariketak eta jarduerak egiteko etxeko material egokiak aplikatu eta maneiatzea: oroimena, arrazoibidea, arreta, eta orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.

- Erabiltzailearen partaidetza sustatzeko eta haren ikaskuntza errazteko jardun-estrategia egokienak identifikatu eta aztertzea.
- Aurreikusitako jarduerak eta/edo ariketak identifikatu eta aplikatzea, medikuak aldez aurretik zehaztutako jardun-protokoloetatik abiatuta.
- Zaharren, minusbaliatuen eta eriondoen gatazka-egoera nagusiak eta jokabide-arazo ezaugarriak azaltzea.
- Dagokion mailan, premia bereziak dituzten pertsonei etxean laguntzearren, jokabidea aldatzeko eta gatazkak ebazteko teknika eta prozedura egokienak deskribatu, aztertu eta aplikatzea.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.

Etxean, mendeko pertsonekin hautabidezko komunikazio-teknikak gauzatzea

- Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonek eguneroko moldaeran dituzten ezaugarri eta behar berezi nagusiak zehaztea.
- Egoera bakoitzaren testuinguruak eta ezaugarri elkarreragileak identifikatzea, bai eta komunikazioa errazten duten baliabide eta estrategia nagusiak ere.
- Haien minusbaliotasunaren ondorioz sortuko diren berariazko arazoak identifikatzea.
- Laguntza-jarduerak planifikatu eta garatzeko garaian aurreikusi beharko diren komunikazio-behar bereziak zerrendatzea.
- Dagokion mailan, pertsonaren bizi-kalitatea ziurtatzeko aplikatu beharko diren komunikazio-estrategiaka zehaztea.
- Ezarritako planaren arabera, komunikazioa sustatu eta errazteko merkatuko baliabide eta laguntza teknikoak edo horretarako diseinatutakoak identifikatu eta aplikatzea: idazketa, marrazki errazak, objektu errealak edo miniaturazkoak, argazkiak, etab.
- Hautatutako prozedura justifikatzea, eta besteekin alderatuta dituen alde onak azaltzea.
- Lagundutako pertsonarengan antzemandako komunikazio-behar bereziak identifikatu eta profesional eskudunei jakinaraztea.
- Ohiko sistemetan oinarritako mezu egokiak sortzea, komunikazio egokia ziurtatzeko.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Eguneroko gaien inguruko elkarrizketak izateko mezu errazak igorri eta ulertzea.

Hautabidezko komunikazio-teknikak

- Komunikazio-prozesua.
- Komunikazio-behar bereziak.
- Hautabidezko komunikaziorako laguntza teknikoak. Komunikazioan esku hartzeko estrategiak eta baliabideak.
- Hautabidezko komunikazio-sistemak. Kontzeptua eta sailkapena. Etxeko laguntzan oinarritako hiztegia erabiltzea.

Laguntza psikosoziala etxean

- Zaharren eta minusbaliatuen gizarte-harremanak.
- Ezaugarriak. Oinarritako gizarte-trebetasunak. Faktoreak. Zailtasunak. Gizarte-harremanak errazteko teknikak. Ondoan egoteko eta gizarte-harremanetarako jarduerak. Esku hartzeko estrategiak.
- Bitartekoak eta baliabideak: teknologia berrien aplikazioak, elkarte-mugimendua, ingurunearen baliabideak eta horiek eskuratzeko bideak.
- Giroa autonomia pertsonalaren, komunikazioaren eta gizarte-harremanen faktore gisa. Elementu espazialak eta materialak: banaketa, aurkezpena. Espazioen dekorazioa. Materialak diseinatu eta prestatzea.
- Zaharren, minusbaliatuen eta/edo gaixoen motibazioak eta ikaskuntzak dituzten berariazko ezaugarriak.
- Oroimena; arreta; orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala; arrazoibidea. Esku hartzeko estrategiak prestatzea.
- Etxeko eguneroko egoeretan autonomia pertsonaleko ohiturak mantendu eta trebatzea. Esku hartzeko teknikak, prozedurak eta estrategiak. Gatazkak ebazteko teknikak. Jokabidea aldatzeko prozedurak eta estrategiak.
- Gizarte-harremanetan, kudeaketak ebazten eta familia-ingurunean ondoan egoteko eta laguntzeko esku-hartzeak.
- Bizikidetzaren unitateetik abiatuta zuzeneko laguntzako profesionalak dituen eginkizunak. Esku hartzeko arloak. Jardun-estrategiak, mugak eta deontologia. Esku-hartze ohikoenak. Kudeaketak. Jarraipena. Dokumentazio pertsonala eta bizikidetzaren unitatearena erregistratzeko prozedurak.
- Gizarte-harremanak eta ondoan egoteko jarduerak errazteko teknikak. Esku hartzeko estrategiak.
- Gizarte-trebetasunak eta autoestimua hobetzeko oinarritako teknikak.

- Dokumentazioa prestatu, erregistratu eta kontrolatzeko prozedura-teknikak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Etkez etxeko laguntzako lantegia, 40 m²-koa.

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Ekipamendua

Hautabidezko informazio- eta komunikazio-sistemak erabiltzailearentzat eta haren ingurukoentzat, eta trebakuntza autonomia fisikoan, oinarrizko ohiturak sortzeko, aisia eta denbora librerako, eta okupazio-jardueretarako. Funtzio kognitiboak mantendu eta horietan trebatzeko erabili ohi diren materialak: orientazioa errealitatean, oroimena, arreta... Hitzezko komunikazioko, hitz gabeko komunikazioko eta hautabidezko komunikazioko materiala eta tresnak. Erabiltzaileen jardueri eta bilakaerari buruzko informazioa bildu eta jakinarazteko materiala. Ingurunekeo baliabideei buruzko informazioa,

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Gizarte- eta osasun-beharrak dituzten pertsoneri zuzenduta, etkez etxeko laguntza psikosozialeko esku-hartzeak garatzearekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den diplomatuaren prestakuntza akademikoa, gutxienez.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez 3 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera egiaztatutako konpetentzia pedagogikoa izatea.

7. Prestakuntza-kreditua: BIZIKIDETZA UNITATEAN AURREKONTUA KUDEATZEKO TEKNIKAK

Konpetentzia-atal honi lotuta dago: Bizikidetza-unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako jarduerak garatzea.

Edukiak eta lorpen-mailaren adierazleak

Etxe batean bizikidetza-unitatearen aurrekontua kudeatu eta banatzea

- Ereduzko bizikidetza-unitate baten gastu arrunten motak deskribatzea.
- Bizikidetza-unitatearen gastuekin lotutako denetariko dokumentazioa aztertu eta interpretatzea: argia, gasa, ura, telefonoa; erkidegoko ordainagiriak, zergarenak, osasun-erakundearenak, aseguruarenak...
- Bizikidetza-unitate bakoitzaren hileko gastuak aztertzea, kontuan izanik kide kopurua, eta horietako bakoitzaren beharrak eta ezaugarriak.
- Bizikidetza-unitate baten hileko aurrekontuaren banaketa baldintzatzen duten faktoreak zerrendatzea.
- Hileroko gastuaren kontu-sailak zerrendatzea.
- Aurrekontua egiteko kontuan hartu beharreko parametroak ezartzea.
- Gastuen lehentasuna ezartzeko arrazoizko justifikazioa.
- Gastuak erarik egokienean banatzea, etxearen ezaugarriak kontuan izanda, eta haiek doitzea diru-sarrerak eta gastuak orekatzeko.
- Lortzen diren emaitzak ebaluatzea, eta, horretarako, haren mailan, iradokizunak gaineratzea edo prozesuen hobekuntzan parte hartzea.
- Erabiltzailea eta/edo zaintzaile nagusiak fase guztietan inplikatzeko ekintzak gauzatzeko, haien autonomia sustatuta eta autodeterminazioa errespetatuta, dagokion mailan.

Bizikidetza-unitatearen aurrekontua kudeatzeko teknikak

- Etxeko hileko gastuaren kontu-sailak: gastu arruntak eta ezohikoak. Banaketa. Ehuneko araberako doikuntza.
- Bizikidetza-unitatearen gastuei lehentasuna ematea baldintzatzen duten faktoreak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, eduki horiek menderatzen dituenak gai izan beharko du moduluarekin lotzen diren konpetentzia-ataletan deskribatutako lanbide-jarduna gauzatzeko, betiere deskribatutako produkzio- eta informazio-bitartekoak erabiliz, eta hori guztia ohiko lanbide-testuinguruetan eta – egoeretan.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak

Etxez etxeko laguntzako lantegia, 40 m²-koa.

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Ekipamendua

Jardun-plana bizikidetzaren unitatean. Zereginak egiteko protokoloak. Zerbitzuen erregistroak. Erabiltzailearen dokumentazio pertsonala eta kudeaketa ekonomikoaren dokumentazioa.

3. Hezitzailearen lanbide-profila

- a) Bizikidetzaren unitatearen kudeaketa- eta funtzionamendu-jarduerarekin lotutako ezagupenak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren baten bidez frogatuko da:
 - Lanbide-alar honekin lotzen den goi-mailako teknikariaren gutxienezko prestakuntza akademikoa izatea.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez 3 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Administrazio eskudunek ezartzen dutenaren arabera egiaztatutako konpetentzia pedagogikoa izatea.

8. Prestakuntza-modulua: LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

Xedeak

1. Ikastetxean bertan lortutako profilaren lanbide-konpetentziak eskuratzeko prozesua osatzea.
2. Lanbide-nortasuna eta -heldutasuna eskuratzeko, bizi osoan zehar ikasten jarraitzeko motibazioa emango dutenak, baita kualifikazio-beharren aldaketetara egokitzeko motibazioa ere.
3. Enpresetako produkzioarekin, merkaturatzearekin, kudeaketa ekonomikoarekin eta harreman soziolaboralen sistemarekin lotzen diren ezagupenak osatzea, lan-munduratzeko errazteko.
4. Ikasleak ikastetxean lortutako profesionaltasunaren alderdi garrantzitsuenak ebaluatzea, eta lan-egoera errealek eskatzen dituztelako egiaztatu ezin diren laneko alderdiak egiaztatzea.

Egin beharreko oinarrizko jarduerak

- Beirak, markoak, leihoak, paretak, ateak eta errotopiak garbitzea.
- Erosketa-zerrenda egitea.
- Etxeko produktuak eta elikagaiak gordetzea.
- Menuak prestatzea.
- Lanabesak, osagarriak eta etxetresna elektrikoak garbitzea.
- Arropak garbitu, lisatu eta adabatzea.
- Oheak prestatzea.
- Garbigarriak garbitu beharreko materialekin edo altzariarekin lotzea.
- Hondakinak ezabatzeko kudeaketa, ingurumen-araudia betetzea.
- Garbigelak garbitu eta desinfektatzea.
- Jasotzen dituen argibideak interpretatu eta gauzatzeko, garatzen dituen zereginen erantzukizuna hartzea eta bezeroarekin eraginkortasunez komunikatzea.
- Jarduera jasotako jarraibideen arabera antolatu eta egitea, kalitate- eta segurtasun-irizpideez.
- Dagokion jarduerarekin lotutako gorabeherak ebazteko nolabaiteko autonomia-maila erakustea.
- Gainerakoekiko bizikidetasun, begikotasun eta errespetuzko jarreraren arau orokorrak erakustea.
- Bereziki, profesionalaren eta erabiltzailearen arteko komunikazioarekin lotutako alderdiei dagokienez, horiek betetzea, eta haiei eta/edo zaintzaile nagusiei laguntzea ohitura osasungarriak eta mendeko pertsonari laguntzekoak sustatzeko beharrezkoa den osasun-informazioa helarazteko garaian.

- Hori bereziki kontuan hartzea erabiltzaileei higiene pertsonaleko teknikak aplikatzean, ohea prestatzean eta larruzalaren egoera behatzean, bai eta erabiltzaileak eta horien zaintzaile nagusiak orientatzean ere.
- Erabiltzaileak lekualdatu, mobilizatu, joan-etorriak eginarazi eta kokatzeko teknikak aplikatzea, eta erabiltzaileak eta horien zaintzaileak prestatzen laguntzea.
- Agindutako tratamenduak aplikatzea sendagaiak ahotik, bide topikotik eta ondestetik ematean, eta bizi-konstanteak hartzean.
- Ahoratzen eta hondakinak biltzen laguntzea.
- Erabiltzaileari laguntzeko eta haren ondoan egoteko jarduerak egitea, kognizioa mantentzera, ohiturak sortu eta hobetzera, errehabilitatzera, etab. zuzenduta.
- Esku hartzeko teknikak, prozedurak eta estrategiak hainbat autonomia-mailatako egoera zehatzetara egokitzea.
- Gizarte-harremanetan laguntzeko eta trebetasunak lortzeko teknikak aplikatzea.
- Etxeko aurrekontua eta zereginak planifikatzea.

9. Prestakuntza-modulua: **ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA**

Xedeak

Prestakuntza-modulu honetako edukiak eta jarduerak ikasi eta gainditu ondoren, ikasleak honako jokaera eta portaera hau izango du:

1. Bat etorriko da ezarritako profilaren ondoriozko lanbide-aukerarekin, eta bokazio bihurtuko du aukera eta erabaki hori.
2. Lanean eta gizarte-mailan aurrera egiteko gogoia erakutsiko du, eta aurrerapen horren ondoriozko aukerak, laguntzak, ibilbideak eta emaitzak identifikatuko ditu.
3. Helburuei eta proiektuei aurre egiteko bere gaitasunek, konpetentziek eta egoera pertsonalak duten ahalmena identifikatuko du; erabakiak hartuko ditu, eta zailtasunak eta arazoak ebartziko ditu, betiere gizarte- eta lanbide-testuinguruekiko koherentziaz.
4. Lan-merkatuan esku hartuko du, lan-munduratzeko aukerak bilatuko ditu, eta bere helburu sozio-pertsonalekin orekatuta erabakiko du bere aurrerapena.

Edukiak eta egin beharreko jarduerak

Lanbide-aukera kokatzea eta ezaugarritzea

- Programaren profilararekin lotzen den sektorea deskribatzea:
 - Sektore horretan egiten diren jarduerak identifikatzea.
 - Sektore horretan dauden enpresak identifikatzea.
 - Bezero/erabiltzaile motak identifikatzea.
- Sektoreko lanbide eta lan-kategoriarik ohikoenak identifikatzea.
- Profilararekin lotzen den lanbidearen edo ogibidearen ezaugarri nagusiak deskribatzea:
 - Eskatzen diren lan-ohiturak identifikatzea.
 - Izan behar diren jarrera pertsonalak eta sozialak identifikatzea.
- Prestakuntzaren prestakuntza-ibilbideak deskribatzea, baita etorkizuneko aukerak ere.
- Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Lanean eta bizitza pertsonalean aurrera egiteko beharrak identifikatzea

- Erabakiak hartzeko prozesua aztertzea:
 - Erabakiak hartzean nola jardun behar den deskribatzea.
 - Ekimenez jardutea erabaki bat hartu behar denean.
- Antolamendu-egiturak aztertzea, zergatiak eta funtzioak.
- Lan-taldearen sorrera aztertzea:
 - Lan-talde bat ezaugarritzea.
 - Talde-lana baloratzea.
- Arazoen edo gatazken esanahia eta motak interpretatzea:
 - Gatazka bati aurre egiteko izan beharreko jokabideak identifikatzea.
 - Hainbat motatako gatazkek eta horiei aurre egiteko jokabideak identifikatzea.
 - Gatazka bati aurre egiteko egon daitezkeen irtenbideak identifikatzea, eta, hala badagokio, horren arabera jardutea.
- Lanbide-jardunerako ohitura kaltegarriak identifikatzea.

Lan-merkatuko dinamika

- Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak deskribatzea.
- Kontratu motak deskribatzea.
- Kontratu aldatzeko, amaitzeko edo eteteko arrazoiak identifikatzea.
- Nominaren deskribapena:
 - Ordainsaria kalkulatzea.
 - Kotizazio-oinarria kalkulatzea.
 - Gaixotasunaren/istripuaren ondoriozko prestazioak kalkulatzea.
 - PFEZa kalkulatzea.
 - Deskontuak kalkulatzea.
- Gizarte-segurantzak, estatuko enplegu-zerbitzu publikoak eta mutualitateek eskaintzen dituzten prestazioak eta babes-ekintzak ezagutzea.
- Hitzarmen batek langileen eta enpresaren eskubideei eta betebeharrei dagokienez dituen funtsezko alderdiak identifikatzea.
- Lana eta bitartekaritza bilatzeko dauden bideak identifikatzea.
- Aurkezpen-gutuna idaztea.
- Curriculum vitae idaztea.

Proiektu eta helburu profesionalak eta pertsonalak

- Norberaren nahiak eta helburuak identifikatzea.
- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertzea.
- Epe ertainerako/luzerako plangintza egitea.
- Erdietsitako lorpenak identifikatzea.
- Lanaren bilakaera aztertzea, helburuei dagokienez.
- Proposatutako helburuetatik urruntzen gaituzten edo horietara hurbiltzen gaituzten lan-egoerak edo egoera pertsonalak identifikatzea.
- Lana garapen pertsonalaren berezko zatia dela jakitea.
- Garapen pertsonalerako eta emozionalerako aisialdi-beharrak eta familiako bizitza eta lana bateratzeko beharrak identifikatzea.
- Nork bere interesak eta nahiak ezagutzea, bizitza afektiboari, familiari eta zaletasunei dagokienez.

Gatazkak

- Definizioa, ezaugarriak eta motak.
- Konpontzeko edo desagerrarazteko metodoak.
- Lan-ingurune komunkazioa.

Ohiturak eta jarrerak

- Zer diren.
- Zer eragina duten lanbide-garapenean.
- Lanaren balioa.
- Lanarekiko jarrera.
- Ohitura eta jarrera positiboak, lanari eusteko.
- Jokabideak. Zer diren eta nola landu behar diren.
- Laneko motibazioa.

Oinarrizko lan-legeria eta lan-kontratuak

- Lan-harremanen motak eta oinarrizko kontratuak.
- Kontratu osatzen duten funtsezko elementuak: lanaldia, ordutegia, iraupena, probaldia, ordainsaria eta oporrak.
- Langileen eta enpresaburuaren eskubideak eta betebeharrak.
- Hitzarmen kolektiboak: helburuak eta funtzioak.

Nomina eta Gizarte Segurantzza

- Definizioa eta atalak.
- Sortzapenak, kenkariak eta kotizazio-oinarriak.
- Enpresen eta langileen betebeharrak.
- Jasotzen dituen prestazioak.

Langileen parte-hartzea enpresan

- Sindikatu-agentek.
- Negoziazio kolektiboa.
- Enpresa-elkarteak.

Lana bilatzea

- Lan-merkatua.
- Autoorientazioa.
- Lana modu aktiboan bilatzeko metodoak.
- Curriculuma: motak.
- Enplegu-eskaintza publikoak.

Proiektu eta helburu pertsonalak

- Zer diren eta nola landu behar diren.
- Oinarrizko psikologia.
- Bizitza-proiektu pertsonala.
- Aisialdia.
- Bizimoduak eta gizarte-harremanak.
- Nork bere burua ebaluatzeko teknikak.

Laneko segurtasuna eta osasuna: oinarrizko kontzeptuak

- Lana eta osasuna: lan-arriskuak. Arrisku-faktoreak.
- Lanaren ondoriozko kalteak. Lan-istripuak eta laneko gaixotasunak. Lanaren ondoriozko beste patologia batzuk.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarrizko arau-esparrua. Arlo horretako oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.

Arrisku orokorrak eta prebentzioa

- Segurtasun-baldintzekin lotzen diren arriskuak.
- Laneko ingurumenarekin lotzen diren arriskuak.
- Lan-karga, nekea eta lanarekiko asegabetasuna.
- Arriskuak kontrolatzeko oinarrizko sistemak. Babes kolektiboa eta norbanakoa.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Langileen osasuna kontrolatzea.

Prestakuntza testuinguruaren oinarrizko eskakizunak

1. Espazioak eta instalazioak:

Balio anitzeko gela, gutxienez 2 m² ikasle bakoitzeko.

2. Hezitzailearen lanbide-profila:

- a) Orientazioarekin eta tutoretzarekin lotzen diren ezagutzak eta teknikak menderatzea. Honako modu hauetakoren batekin frogatuko da:
 - Lanbide-alor honekin lotzen den diplomatuaren prestakuntza akademikoa, gutxienez, edo goragoko mailakoa.
 - Prestakuntza-modulu honekin lotzen diren konpetentzien alorrean gutxienez 5 urteko lanbide-esperientzia izatea.
- b) Ezartzen denaren arabera egiaztatutako konpetentzia pedagogikoa izatea.

II. ERANSKINA

1. Honako hauek izango dira lehen mailako berariazko moduluen ordu kopuruak:

Berariazko prestakuntza-modulua	Gutxieneko orduak asteko	Erreferentziako orduak asteko
Paretak, zoruak eta kristalak garbitzea eta mantentzea	2	2
Elikagaiak eta produktuak erostea, eta etxean antolatzea, manipulatzeko, prestatzea eta kontserbatzea	4	5
Jantziak eta etxeko arropa garbitzea, lisatzea eta adabatzea eta/edo jostea, eta oheak prestatzea	2	3
Barneko altzariak garbitzea	2	2
Etxez etxeko higiena eta osasun-laguntza	5	6
Ikastetxeak izendatzeko	3	

- Lehen mailan, nahitaez irakatsi beharko dira honako berariazko prestakuntza-modulu oso hauek:
 - Paretak, zoruak eta kristalak garbitzea eta mantentzea.
 - Elikagaiak eta produktuak erostea, eta etxean antolatzea, manipulatzeko, prestatzea eta kontserbatzea.
 - Jantziak eta etxeko arropa garbitzea, lisatzea eta adabatzea eta/edo jostea, eta oheak prestatzea.
 - Barneko altzariak garbitzea.
- Lehen mailan, berariazko prestakuntza-moduluak inola ere ez dira izango asteko 18 ordutik gorakoak.

2. Honako hauek izango dira bigarren mailako berariazko moduluen ordu kopuruak:

Berariazko prestakuntza-modulua	Gutxieneko orduak asteko	Erreferentziako orduak asteko
Etxez etxeko higiena eta osasun-laguntza	5	6
Bizikidetzaren unitatean aurrekontua kudeatzeko teknikak	2	3
Oinarriko laguntza psikosoziala etxean	5	6
Ikastetxeak izendatzeko	3	

- Bigarren maila honek 24 asteko iraupena izango du ikastetxean. Gainerako asteak Lantokiko Prestakuntza modulurako erabiliko dira. Lantokiko Prestakuntzak guztira eta nahitaez 330 orduko iraupena izango du.
 - Bigarren mailan, berariazko prestakuntza-moduluak inola ere ez dira izango asteko 15 ordutik gorakoak.
3. Orientazioa eta tutoretza moduluak maila bakoitzean asteko bi orduko iraupena izango du nahitaez.